

EH BILDUK EGITEN DUEN PANDEMIAREN ONDORIO LATZEN ERABILERA POLITIKO ALDERDIKOA SALATU DU EAJK

- **“Lehen agerraldian itxiera osoaren alde egiten zuen eta orain, bigarren agerraldian, neurri murriztaileak hartu direnean, ez ditu babesten. Hipokresia eta erabilera politikoa baztertu eta elkarlanerako momentua da, ez da batere koherentea egun batean gauza bat eskatzea eta hurrengoan kontrakoa, interes alderdikoiak gizartearen beharren gainera jarrita”.**
- **Oposizio eraikitzailea egitea posible ez ezik beharrezkoa dela uste dute jeltzaleek eta bide horretan hainbat proposamena aurkeztu dizkiote alkateari pandemia geldiarazteko neurrien ondorioz murriztuta dauden jarduera ekonomikoei laguntzeko.**

Oñatiko EAJK bere elkartasuna adierazi nahi izan die covid 19ak sortutako krisiaren ondorioz gogorrenak pairatzen ari direnei, lehenik eta behin, osasuna eta kasurik larrienen bizi ere galdu dutenei eta beren senitariekoei, baina baita gaitzari aurre egiteko hartu beharrezko neurrien ondorioz beren jarduera etenda edo murriztuta dutenei edota ERTE egoeran edo langabezia geratu direnei. “Begi-bistakoa da garai zailak bizitzea tokatu zaigula, ez soilik Euskal Herrian, baita mundu mailan ere, pandemia eragin duen gaitzarengatik eta baita bere ondorio ekonomikoengatik ere” diote jeltzaleek “garai zailok ez dira halere guztiontzat berdinak eta bereziki sufritzen ari direnei gure elkartasuna, babesa eta konpromisoa adierazi nahi diegu”.

Pandemiaren eraginik latzena covid-19ak eragindako heriotzak dira eta horiek murrizteko era bakarra gaitzaren transmisioa geldiaraztea da EAJren ustez eta horren aurrean neurriak hartzea ezinbestekoa izan da jeltzaleek azaldu dutenez, “osasuna lehentasun izanik hartu beharrezko erabakiek, ordea, ondorio ekonomikoak ere eragin dituzte eta hor daukate jarrita fokoa momentu honetan euskal erakundeek, bai Eusko Jaurlaritzak, bai Aldundiek eta baita Udalek ere”. Ainhoa Galdos bozeramaile jeltzaleak azaldu duenez, “Oñatiren kasuan, udal gobernuarekin elkarlanean aritu gara oposiziotik, ulertuta, egoera honetan guztiok egin behar dugula ahalegina eta elkarlana sustatzea ezinbestekoa dela, izan ere, oposiziotik eraikitzea ere posible dela uste dugu eta ez dugu uste kritika hutsean gelditzeko momentua denik, ez da hori herriak behar duen oposizioa” azpimarratu du Galdosek.

Hala, EH Bilduren jarrerarekin harriztasun azaldu dira jeltzaleak erakunde guztiak erabiltzen dituztelako EAJri “oposizioa” egiteko, baita gobernatzen dituztenak ere “EH Bilduren udal gobernuak aditzera eman nahi du berak Oñatiko Udaletik bere esku dagoen guztia egiten duela eta ez Eusko Jaurlaritzak eta ez Aldundiak ez dutela ezer egiten. Hori, gezurra izateaz aparte, pandemiak ekarritako egoera hain larri honen erabilera politikoa alderdikoia egitea da, batere eskupulurik gabe gainera” dio Oñatiko EAJK. EH Bilduk lehen agerraldian itxiera osoaren alde egiten zuela eta orain, bigarren agerraldian, neurri murriztaileak hartu direnean, ez dituztela babesten salatu dute gainera jeltzaleek, “hipokresia eta erabilera politikoa baztertu eta elkarlanerako momentua da, ez da batere koherentea egun batean gauza bat eskatzea eta hurrengoan kontrakoa, interes alderdikoak gizartearen beharren gainera jarrita” aldarrikatu du EAJK. Oñatiko EAJK oñatiar guztien alde lanean jarraitzeko konpromisoa azaldu du “leialtasunez eta zintotasunez” eta konpromiso hori alderdi mailan Euskal Herri osorako konpromisoa dela ere nabarmendu du “gure lehentasuna herritarrek dira, bai gobernutik eta baita oposiziotik ere eta herritarrentzako lanean jarraituko dugu” dio Galdosek.

Hori guzti hori aintzat hartuta ondorengo berehalako neurriak proposatu dizkio alkateari Oñatiko EAJ-PNV udal taldeak ostalaritzari laguntzeko:

- Aurrekontuen lanketaren baitan jada EAJ- PNVren udal taldeak EHBilduren udal gobernari proposatutakoak:
 - Ostalaritzan eta merkataritzan, COVID 19ak eskatzen dituen neurrietara egokitzeko inbertsioak laguntzeko diru-lerroa (estufak, karpak, manparak).
 - Merkataritza eta ostalaritzaren digitalizaziorako formakuntza programa.

- Berriak:
 - Ostalaritza eta ostalaritzari lotutako jardueri (upategi, hornitzaile, banatzaileak...) Itzuli beharrik gabeko dirulaguntza finkoa jardueren eteteak sortutako ondorio ekonomiko kaltegarriak arintzeko, enpresa-betebeharrak betetzeko, enpresa-jarduerari eta enpleguari eustea erraztuz. Horrela, honako kontzeptu hauek finantzatzeko laguntzak proposatzen ditugu: Jarduerari atxikitako lokalaren errentamendu-errentei dagozkien hileko kuotak/Jarduerari atxikitako lokala erosteko emandako hipoteka/maileguari dagozkion hileko kuotak (printzipala itzultzea soilik, interesak kenduta); enpresa-jardueraren garapenarekin zuzenean lotutako hornidurak: komunikazioak (telefonía, Internetarako konexioa), ura, elektrizitatea, etab.; enpresa-jarduera garatzeko nahitaezko aseguru-kuotak (itxiera ezarritako gauzatze-aldiari egotz dakioken zati proportzionala, hala badagokio); autonomoen/mutualitate profesionalen kuotak, enpresaren konturako gizarte-aseguruak.
 - Autonomoak eta langilerik gabeko mikroenpresak: 1.000 €
 - Autonomoak eta mikroenpresak, gehienez 5 langile: 2.000 €
 - Establezimenduetako terrazetan mahaiak handitu ahal izateko irisgarritasun-arauak berrikustea, eta bere kasuan, obra-lizentziak arintzea.
 - Sei hilabetez negozioa ireki gabe egon ondoren jarduera-lizentziak ez kentzea.
 - Herriko taberna eta jatetxeetan kontsumoa bultzatzeko bonuak.
 - Ostalaritzarako lan-mahai sektoriala sortzea.
 - EH Bilduk Igotako zerga (Ondasun higiezinaren gaineko zerga (IBI), Jarduera Ekonomikoen Gaineko zerga eta ibilgailuen gaineko zerga) eta tasak jaitsi eta izoztea.

EAJ-PNV DENUNCIA EL USO POLÍTICO PARTIDISTA QUE HACE EH BILDU DE LAS DURAS CONSECUENCIAS DE LA PANDEMIA

- **"En la primera ola abogaba por el cierre total y ahora, en la segunda, cuando se han tomado medidas restrictivas, no las apoya. Hay que dejar de lado la hipocresía y la utilización política, es momento de unir fuerzas, no es nada coherente un día pedir una cosa y al siguiente la contraria, poniendo los intereses partidistas por encima de las necesidades de la ciudadanía".**
- **Los jeltzales creen que no sólo es posible sino que es también necesario hacer una oposición constructiva y han presentado varias propuestas a la alcaldesa para ayudar a quienes han visto reducida su actividad económica por las medidas para frenar la pandemia.**

EAJ-PNV de Oñati ha querido mostrar su solidaridad a quienes sufren las consecuencias más duras de la crisis generada por la covid 19. En primer lugar, a quienes han perdido la salud y, en el peor de los casos, la vida, a sus familiares y a quienes tienen su actividad suspendida o reducida como consecuencia de las medidas adoptadas para hacer frente a la pandemia o han quedado en situación de ERTE o de desempleo. "Nos ha tocado vivir tiempos difíciles, no sólo aquí sino también a nivel mundial, tanto por los efectos devastadores de la enfermedad como por sus consecuencias económicas", afirman los jeltzales "las dificultades no son, sin embargo, las mismas para todos y queremos mostrar nuestra solidaridad, apoyo y compromiso a quienes sufren más dichas consecuencias".

EAJ-PNV considera que el efecto más devastador causado por la pandemia son, sin duda, las muertes por covid-19 y que la única forma de reducirlas es frenar la transmisión de la enfermedad y para ello, según han explicado los jeltzales, ha sido imprescindible tomar medidas drásticas. "Las decisiones que se han tomado dando prioridad la salud, sin embargo, también han provocado consecuencias económicas y es donde tienen puesto el foco en este momento las instituciones vascas, tanto el Gobierno Vasco como las Diputaciones y los Ayuntamientos". Según ha explicado la portavoz jeltzale Ainhoa Galdos, "en el caso de Oñati, hemos colaborado con el gobierno municipal desde la oposición, entendiendo que en esta situación es imprescindible fomentar el esfuerzo y la colaboración por parte de todas y todos, ya que creemos que también es posible construir desde la oposición y no creemos que sea el momento de detenernos en la mera crítica, no es esa la oposición que necesita el pueblo" señala Galdos.

"El gobierno municipal de EH Bildu quiere dar a entender que hace todo lo que está en su mano desde el Ayuntamiento de Oñati y que ni el Gobierno Vasco ni la Diputación hacen nada. Eso, además de no ser cierto, supone hacer un uso político partidista de esta situación tan dramática que vivimos por la pandemia y hacerlo, además, sin ningún escrúpulo" dice el PNV de Oñati. Los jeltzales han denunciado además que EH Bildu en la primera ola abogaba por el cierre total y ahora, en la segunda, cuando se han tomado medidas restrictivas, no las apoyan, "hay que dejar de lado la hipocresía y la utilización política, es momento de unir fuerzas, no es nada coherente un día pedir una cosa y al siguiente la contraria, poniendo los intereses partidistas por encima de las necesidades de la ciudadanía". EAJ-PNV de Oñati ha mostrado su compromiso de seguir trabajando por todas y todos las y los oñatiarras "con lealtad y honestidad" y ha destacado que este compromiso es un compromiso para toda Euskal Herria a nivel de partido "nuestra prioridad es la ciudadanía, tanto desde el gobierno como desde la oposición y seguiremos trabajando para los y las oñatiarras" afirma Galdos.

Por todo ello, el grupo municipal EAJ-PNV en Oñati ha presentado a la alcaldesa las siguientes medidas inmediatas de apoyo a la hostelería:

- Propuestas que ya ha realizado el grupo municipal EAJ-PNV al equipo de gobierno en el marco de la elaboración de los presupuestos para el 2021:

- Una línea de ayuda a inversiones en hostelería y comercio para adaptarse a las medidas exigidas por el COVID 19 (estufas, carpas, mamparas).
- Programa de formación para la digitalización del comercio y la hostelería.
- Nuevas propuestas:
 - Subvención fija a fondo perdido para paliar los efectos económicos adversos derivados de la suspensión de actividades de hostelería y las actividades relacionadas con la hostelería (bodegas, proveedores, distribuidores...), para el cumplimiento de las obligaciones empresariales, facilitando el mantenimiento de la actividad empresarial y del empleo. Así, proponemos ayudas para financiar los conceptos de cuotas mensuales correspondientes a las rentas de arrendamiento del local afecto a la actividad/cuotas mensuales correspondientes a la hipoteca/préstamo concedido para la adquisición del local afecto a la actividad (devolución del principal únicamente excluidos los intereses); provisiones directamente relacionadas con el desarrollo de la actividad empresarial: comunicaciones (telefonía, conexión a Internet), agua, electricidad, etc.; cuotas de seguro obligatorias para el desarrollo de la actividad empresarial (parte proporcional imputable al periodo de ejecución establecido de la autonomía de cierre, en su caso); cuotas de autónomos/mutualidades profesionales, seguros sociales.

Autónomos y microempresas sin trabajadores 1.000 €

Autónomos y microempresas hasta 5 empleados 2.000 €

- Revisar las normas de accesibilidad para poder ampliar las mesas en las terrazas de los establecimientos y en su caso agilizar las licencias de obra.
- No retirar las licencias de actividad tras seis meses sin abrir el negocio.
- Bonos para impulsar el consumo en bares y restaurantes de la localidad.
- Que EH Bildu baje y congele los impuestos (IBI, el Impuesto de actividades económicas y el impuesto de vehículos) y las tasas que ha subido recientemente en las ordenanzas fiscales.
- Creación de una mesa de trabajo sectorial para hostelería.